“Herritarren artean Euskararen erabilera soziala sentiberatzeko asmoz”, tokian tokiko egunkarietan eta “Argia” aldizkarian hainbat iritzi artukuluak.

Euskara XXI gogoeta irekiaren txostenean partaidea.

### Lan Esperientzia

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Gaztediaren koordinatzailea 1990 eko otsailaren 20tik 2003ko ekainaren 14ra arte eta 2011ko ekainetik gaur egun-erarte.

### Kargu Publikoak

Bilboko udaleko EAJ/PNVko Euskara zinegotzia 2003ko ekainaren 14tik 2011ko ekainaren 13rarte.

2013ko irailaren 2tik 2015eko uztailaren 21rarte, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia, 2015eko uztailaren 21etik orain arte, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.

### Beste kargu batzuk:

Uribarri barrutiko presidentea 2003tik 2011arte.

Arriaga Antzokiko administrazio kontseiluko presidente-ordea 2003tik 2007ra.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa Administrazio Kontseiluko kidea, 2003tik-2007ra.

Juan Telesforo de Arteche Fundazioko kidea, 2003tik 2011arte.

Conde de Aresti Fundazioko kidea 2003tik gaur egunerarte.

Euskara Aholku Batzodeko kidea 2007ko urritik 2011ko urtarrilerarte. 2013ko urritik orain arte.

Euskalduna Jauregiko Administrazio Kontseiluko kidea, 2003tik-2007ra. 2013tik orain arte, BFAren izenean.

Bilboko Udaleko ordezkaria Azkue Fundazioan, sortu zenetik 2011 arte. 2013tik orain arte, Azkue Patronatoko idazkaria BFAko ordezkaria.

### HIZKUNTZAK

Euskara 1985ean EGA titulua, HAEEko 3.hizkuntza eskakizuna.

### Egindako ikastaroak

Evaluación, análisis o “auditoria” de servicios y programas culturales territoriales I.

Evaluación, análisis o “auditoria” de servicios y programas culturales territoriales II.

Presente y futuro de la formación de animadores juveniles.

Hezkidetza astialdian.

Estrategias de profesionalización en el sector de la Infancia y Juventud. Analisis de los Recursos de Ocio y Tiempo Libre educativos.

Orientaciones para el diseño de los Servicios Locales de Juventud.

Políticas y Legislación comunitaria europea en los ámbitos del ocio (cultura, turismo, deporte, recreación).

Talde Laneko trebetasun pertsonalak.

Gazteria Etorkizuna erekitzen.

Udal mailan hizkuntza-politika bideratzeko oinarritzko ezagutza ikastaroaren I.edizioa. (EUDELEN “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena udaletan.

## KULTURA ZUZENDARI NAGUSIA

### Andoni Iturbe Amorebieta

Amorebieta-Etxanon jaio zen, 1967an.

#### Prestakuntza akademikoa

- Deustuko Unibertsitateko Geografia eta Historian lizentziatua (1990).
- Doktoretza: Ikertzeko nahikotasuna-Deustuko Unibertsitatea (1990-1992).
- Kultur Kudeaketa eta Politikei buruzko graduondokoa, Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Fakultatean (1993-1994).
- Jakitearen Kudeaketako Masterra, Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politikoetako eta Soziologiako fakultatean (2002).

#### Lan-esperientzia

- Bizkaiko Foru Aldundiko kultur proiektuen zuzendaritzako teknikaria (1993-2004).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua (2004-2017).

#### Irakaskuntza eta ikerketa

- Deustuko Unibertsitateko irakaslea (2004-2006).
- Katedrako laguntzailea Deustuko Unibertsitateko Geografia eta Historia fakultatean (1990-1993).
- Ikerkuntzako beka Bizkaiko Batzar Nagusietan. "Legislación Foral del Señorío de Bizkaia 1528-1877" (1990-1992).
- Amorebieta-Etxanoko Udalaren ikerkuntzako beka. "Impacto de la guerra civil". (1989)

#### Beste datu interesgarri batzuk

- Argitalpen hauen egilea da: "Legislación Foral del Señorío de Bizkaia 1528-1877" (Bizkaiko Foru Aldundia-Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1992) eta "Actas de las Juntas Generales de Bizkaia" (Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bilbo, 1992). Horretaz gain, aldizkarietarako artikulak idatzi ditu eta hitzaldiak eman ditu foro eta biltzarretan.
- Batzorde hauetako kidea: Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Aholku Batzordea, Euskadiko Museoen Aholku Batzordea eta Deustuko Unibertsitateko Aisialako Ikaskuntzen Institutuko Aholku Batzordea.
- Bilbao-Bizkaia Museoak SLko Administrazio Kontseiluko, Bizkaikoaren Administrazio Kontseiluko eta Gernika-Lumoko Bakearen Museoaren Patronatuko kidea.

- Sociedad Artístico-Cultural «Zornoza» elkartearen presidenteordea eta Eusko Ikaskuntzako eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko bazkide osoa.
- Euskaraz (EGA eta 3. hizkuntz eskakizuna) eta ingelesez (Europako C1 maila) hitz egin eta idazten du.

## KOMUNIKAZIORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

**Estibaliz Ortiz Tinoco**

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatua (UPV-EHU - 1996)

### Prestakuntza akademikoa

Unibertsitateko ikasketetan zehar hainbat komunikabidetan praktikak egin ondoren, 1996ko ekainean, Radio Euskadiko programen sailean hasi zen lanean, non produkzio- eta esatari-lanak egin baitzituen.

### Ibilbide profesionala

2006ko maiatzean, Radio Euskadiko «prime time»ko irrati-saioen arduradun izendatu zuten. Tarte horretan, albistegiak eta entzule gehien dituzten goizeko magazinak ematen dira. Modu aktiboan lagundu zuen irratarako formatu eta eduki berrien diseinuan, irrati publikoaren entzuleen kopurua modu esponenzialean hazi zen garai batean.

2008ko urtarrilean, Radio Euskadiko zuzendari izendatu zuten. Haren ardurapekoak ziren EITBko irrati horretako teknikari, administrari eta idazleen kudeaketa eta informazioa emateko eta programazioa egiteko irizpideak.

2009ko abuztuan, Grupo Noticias taldeko Radio Onda irrati zuzendaritza hartu zuen.

Estibaliz Ortizek kargua hartu bezain laster, komunikabidea erabat berritu zen, edukiei zein programei dagokienez; gainera, emanaldietarako ordutegia zabaldu egin zen, eguneko 24 orduak osatu arte, astelehenetik igandera arte, eta Herri Irratia kateko profesionalak zein irratiak hartu zituen bere barruan. Haren eskumenekoak ziren, orobat, irrati langileen kudeaketa eta finantza-planak.

Azkenik, 2015eko uztaillean, Bizkaiko Foru Aldundiko Komunikaziorako zuzendari nagusi izendatu zuten.

### Beste datu interesgarri batzuk

Lehen adierazitako zuzendaritza-lanez gainera, azken urteetan, zenbait ikastaro eman ditu (prestakuntza estrategikoa, komunikabideekiko harremana eta lidergoa lantaldeetan), non ikasleekin partekatu baitu lantaldeen zuzendaritzan eta aurrekontuen kudeaketan hartutako esperientzia.



## FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO PRESIDENTEA

### Felix Ayarza Palma

Bilbon jaio zen, 1959an.

Prestakuntza akademikoa

Deustuko Unibertsitate Komertzialeko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako lizentziatua.

Ibilbide profesionala:

1987-1989 urte bitartean, SEBASTIAN DE LA FUENTE kontsumo-produktuen banaketaren sektoreko enpresan egin zuen lan, administrazio-ataleko teknikari. Hain zuzen, kontabilitate- eta finantza-lanak egin zituen, eta, diruzaintzari dagokionez, finantza-erakundeekiko diruzaintza-negozioazioaren arduradun jardun zuen.

1990-1991 urte bitartean, goi-mailako teknikari aritu zen EUSKO JAURLARITZAN, Herrizaingo Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikita. Lanpostu horretan, diseinu-, garapen- eta kudeaketa-lanak egin zituen honako arlo hauetan: aurrekontuak, sailaren proiektuak, informazio-, ebaluazio- eta jarraipen-sistemak, ondare eta ekipamenduaren administrazioa eta kontserbazioa, barne-antolaketa, sailaren zerbitzuen zein lan-sistema eta -metodoen arrazionalizazioa eta informatizazioa, gainerako sailekiko koordinazioa eta sail arteko batzorde eta kontseiluetan parte hartzea, eta, azkenik, Ertzaintzari dagokion kupoak kalkulatu eta zehaztea.

1991-1995 urte bitartean, EUSKO JAURLARITZAKO Herrizaingo Sailari atxikitako Arkauteko Polizia Akademiako gerente aritu zen. Orduan, 2 milioi euro inguruko aurrekontu batekin eta 15 pertsona esleiturik zituela, ekonomia, ondare eta aurrekontuaren arloko kudeaketa-lanak egin zituen, bai eta zerbitzu orokorren nahiz giza baliabideen zuzendaritza-lanak ere.

1995-2003 urte bitartean, Ekonomia eta Plangintza Ekonomikoko zuzendari jardun zuen, EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Sailari atxikita. Orduan, 10 milioi euro inguruko aurrekontu batekin eta 30 pertsona esleiturik zituela, Jaurlaritzaren eta eskualdeko ekonomiarekin lotutako lanak egin zituen, hala nola: plangintza ekonomikoaren tresnen zein edukien definizioa; programa eta politika publikoen ebaluazioa; Euskal Sektore Publikoaren, herri administrazioen, eta atxikitako sektore publikoaren jardun ekonomiko eta finantzarioaren jarraipena eta azterketa; programazio ekonomikoaren doitzea; lurralde-antolamenduko tresnak prestatzea; EAEko ekonomiaren azterlan, txosten eta argitalpenak egitea (orokorrak edo sektorialak); ikerketa ekonomikorako metodoak eta EAEko ekonomiarako zein haren sektore eta/edo segmentuetarako modeloak garatzea; Jaurlaritzaren ezohiko neurri ekonomiko eta finantzarioen ikerketa eta azterketa; sailaren estatistika-produkzioarako proposamena eta garapena; Estatuak EAERI emandako eskualdeko laguntzen mapa; Europar Batasunaren esku hartzerako programa eta ekimenak prestatzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea; Jaurlaritzari informazioa ematea Europako politika ekonomikoari buruz eta, bereziki, eskualdeko politikari buruz, eta, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskualdeko barne-politikaren arloko programen definizioa (2. helburua, FEDER eta INTERREG Europar Batasuneko funtsak).

2003-2015 urte bitartean, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Ogasuneko zuzendari nagusi aritu da. Garai horretan, urteko 6.500 milioi inguruko sarrerak izan ditu helburu (diru-billetan oinarrituak); gastuaren aurrekontuari dagokionez, 28 milioi euro eduki ditu, urteko (langileen kostua sartu barik), eta 850 pertsona baino gehiago izan ditu esleiturik, zuzendaritza horri emandako eginkizunak garatzeko. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusian,

atxikitako zerbitzu eta atalekin elkarlanean, Foru Ogasunaren politikak eta berezko kudeaketa-helburuak gauzatu eta bete ditu, honako lau organo hauen sustapen, kontrol eta zuzeneko koordinazioaren bidez:

- o Zerga-kudeaketa: zuzeneko tributuoak, zeharkakoak, zentsu-kontrola eta tokiko tributuoak, eta zergadunarentzako informazioa eta laguntza.
- o Ikuskaritza.
- o Diru-bilketa: diruzaintza, gerorapenak eta bermeak, eta konkurtso-prozedurak.
- o Koordinazioa eta laguntza teknikoak: Fiskaltzarekin eta Justizia Administrazioaren organoekin harreman ofizialak, tributuen arloko doktrina, Europar Batasunaren araudiaren betearazpena, Estatuaren laguntzak eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari aurkeztu beharreko auziak prestatu, izapidetu eta haien jarraipena egitea.

Gainera, hainbat jardun-sektoretako administrazio-kontseiluetan parte hartu du:

- o 1995-2001 urte bitartean, AZTIn, itsasoaren eta elikagaien berrikuntzan aditua den zentro teknologikoan.
- o 1995-2003 urte bitartean, NEIKERen, nekazaritzako elikagaien sektoreari aplikatutako ikerketa eta garapen teknologikoan diharduen zentro teknologikoan.
- o 1995-2003 urte bitartean, ZAISAn, mugaz gaindiko plataforma logistikoa proiektatu eta kudeatzen duen Irungo sozietate publiko-pribatua.
- o 2004-2009 urte bitartean, ZABALGARBin, hondakinak erabiliz energia produzitzen diharduen sozietate publiko-pribatua.
- o 2003-2015 urte bitartean, Estatuko Loteria eta Apustuen Enpresa-Entitate Publikoaren Bizkaiko Ordezkaritza foru erakunde autonomiadunean.
- o 2004-2015 urte bitartean, ELKARGIn, enpresek eta enpresentzat sortutako finantza-erakundean. Abal-emailea da, eta aholkularitzan eta finantza-zerbitzuetan aritzen da.
- o 1998-2003 urte bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaria izan zen Europako Erregioen Batzordean.

Gaztelaniaz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.

## **ESTRATEGIA DIGITAL ETA KORPORATIBOAREN KABINETEKO BURUA**

### **Ibon Oñate Zamalloa**

Zornotzan jaio zen, 1976ko otsailaren 12an.

#### **Prestakuntza akademikoa:**

Produktu elektronikoen garapeneko eta programazioko goi-mailako teknikaria (1996-1999)

Industria Ingeniaritza Teknikoko (elektronika) ikasketak, Gasteizko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan (1993-1996)

#### **Lan-esperientzia:**

Dominion t.i. enpresan hasi zuen bere lanbide-karrera; lehendabizi programatzaile, Interneteko analista eta WEB teknologien irakasle izan zen (1999-2001), eta, horren ondoren, proiektu-zuzendari eta administrazio publikoetako zuzendari iparraldean (2001-2005), Exact Software Basque Country enpresaren bazkide sortzaile eta zuzendari nagusi (2005-2008), Deusto Solutions enpresaren bazkide sortzaile eta kontseilari delegatu (2005-2009) eta administrazio publikoen iparraldeko negozio-unitatearen zuzendari, I.T Deusto enpresan (2008-2009).

Esperientzia handia du sektore publikoan, eta BiscayTIK fundazioaren zuzendari nagusi aritu da, dedikazio eskusiboa eskainiz, 2009tik 2013ra. Hain zuzen ere 2013an, Administrazio, Zerbitzu Orokorretako eta Berrikuntza Publikoko zuzendari nagusi kargua bete zuen (2013-2015), eta zenbait zuzendaritza-batzorde eta administrazio-kontseilutako kide izan da - Lantikeko lehendakariorde - BiscayTIK fundazioaren patronatuko kide - Zugaztelgo lehendakariorde.

2015etik 2019ra, Koordinazioko zuzendari nagusi eta Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteko buru jardun du. Aldi berean, kargu hauek bete ditu: Gordetegi Frankoko Partzuergoaren Batzorde Betearazleko lehendakari, Aparkabisako idazkari, Basalango aholkulari, Euskalduna Jauregiko aholkulari, Lantikeko lehendakariorde, BiscayTIK fundazioko lehendakariorde eta Zugaztelgo lehendakariorde.

Ingeles, euskara eta gaztelania maila handia du, ahoz zein idatziz, eta Brasilgo portugesez ere egiten du, oinarrizko mailan.

## AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEKO BURUA

**Igor Camaño Ortuzar**

Santurtzin jaio zen, 1973an.

Prestakuntza akademikoa

EHUko Komunikazio Zientzietan lizentziatua.

Ibilbide profesionala:

Haren ibilbide profesionala, 21 urtez, komunikabide pribatuekin lotuta egon da, batez ere, prentsarekin. Herri Administrazioan lan egin aurretik, zuzendari adjuntua izan zen DEIA egunkarian, non Politika Ataleko buru, Athleticen sinadura eta Ezkerraldeko ordezkari ere jardun baitzuen. Zenbait lan argitaratu ditu kirolaren prentsa espezializatuan eta zenbait igandekaritan; horrez gainera, lankidetzan aritu da kultur eta kirol komunikazio-erakunde batzuetako kabinetean.

2013ko maiatzetik 2015eko maiatzera, aholkulari izan da aurreko ahaldun nagusiari Laguntzeko Unitatean.

Euskara eta ingelesa ikasten ari da.

## GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

### Leyre Vitorica Donezar

Bilbon jaio zen 1983an.

#### Prestakuntza akademikoa:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Bilbo), finantzen espezialitatean. Azken maila Tilburg-eko Unibertsitatean egin zuen (Herbehereak). Zuzendaritza-trebetasunetako masterra egin zuen Deustuko Merkataritza Unibertsitatean.

#### Lan-esperientzia:

Deloitte-n hasi zen lanean, munduan lege-aholkularitza eta -auditoretzan diharduten enpresa handienetako batean. Entitate horretan sektore publikoko estrategien eta eragiketen arloa landu zuen. Hainbat proiektutan aritu da *experienced senior* aholkulari modura aholkuak ematen sektore publikoko erakundeei eta entitateei (Europakoak, estatukoak, autonomikoak, foralak eta tokikoak): aholkularitza estrategikoa eta bideragarritasun-planak; antolamenduaren eraginkortasunaren hobekuntza (integrazio-prozesuak, antolamendu-ereduak, prozesuak); lehiakortasun-planak; eragina ebaluatzeko ereduak.

2015ean Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernu-talde berrian sartu zen Modernizaziorako, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Kabinetearen aholkulari aritzeko; egiteko horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernamendu onerako estrategia zehazteko eta hedatzeko aholkuak eman zituen eta gardentasunaren eta datu irekien arloan araugintzako tresnak eta kudeaketa, eraginkortasuna eta politika korporatiboak hobetzeko zeharkako tresnak prestatzen lagundu zuen.

2018tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusi jardun du.

#### HIZKUNTZAK

Euskara:- Maila handia, ahoz zein idatziz. Tituluak: Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

Ingelesa: Maila handia, ahoz zein idatziz. Tituluak: English for Commerce – Highest Level (London Chamber of Commerce) First Certificate of Cambridge (University of Cambridge)

Frantsesa: Maila handia ahoz, eta ertaina idatziz. Tituluak: A4 Pratique du fonctionnement de la langue (Comisión Nationale du DELF et du DALF). Gaur egungo baliokidea: B1 maila.

## OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARI NAGUSIA.

### MAITE ASENSIO DE LA VILLA

Maite Asensio de la Villa Rio de Janeiron jaio zen, 1971n.

#### Prestakuntza akademikoa

Zuzenbidean lizentziaduna eta Ekonomian diplomaduna, Deustuko Unibertsitatean.

#### Ibilbide profesionala:

Bere lan-ibilbidea 1994an hasi zen, sektore pribatuan, FCC enpresan, hain zuzen ere. Enpresa horretako Administrazio Kontseiluan, giza baliabideen eta hornitzaileen kontroleko atalaren arduraduna izan zen. 2001eko azaroan, bere plazaz jabetu zen Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario legez, eta 2007ra arte, Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzaren zergen aholkulari tekniko gisa lan egin zuen, eta horren ondoren, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuko buru. 2011ko uztailetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia da.

#### HIZKUNTZAK

Euskara: EGA

Ingelesa: Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila

## ADMINISTRAZIO ETA GIZARTE SUSTAPEN ZUZENDARI NAGUSIA

### Maite de Iturrate Ibarra

Bilbon jaio zen 1978. urtean.

Zuzenbidean lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (espezialitatea: zigor zuzenbidea eta zuzenbide zibila)

Hauxe da bere prestakuntza akademikoa:

1995 Aisialdiko begiralearen titulua, Gaztetxoan eskolak emandakoa (Euskaraz)

2002-2003 Euskadiko Zuzenbide Zibileko masterra, Deustuko Unibertsitatean

2004 Legelarien Euskal Kontseiluak emandako ikastaroa: "Adingabearen erantzukizun zibil eta penala".

2005 Jarduera Juridikoko Eskolak emandako ikastaroa: Ezkontza Zuzenbidea I (20h) eta II (20h).

2011 Jarduera Juridikoko Eskolak emandako ikastaroa: Genero-indarkeria.

2012 Jarduera Juridikoko Eskolak emandako ikastaroa: Berariazko genero-indarkeria.

Lanbide-esperientzia:

1995-2002 Aisialdiko begiralea Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Udalekuetan eta Deustuko Ikastolako jantokian (Bilbo).

2001-2003 Administraria Ingeniería NIP, S.A. enpresan, Petronorri azpikontrataturakoa.

2003-2004 Amaia Arkotxa Elguezabalen Abokatuen Bulegoa.

2004-2017 "Iturrate y Martínez Abogados, C.B." Bulego Profesionalaren jabekidea.

2006-2017 Zigor abokatua Clara Campoamor Elkartean.

2008-2017 Santurtziko Udaleko Emakumearen Saileko aholkulari juridikoa. Aholkularitza juridikoa emakumeei esparru hauetan: familia zuzenbidea, genero-indarkeria, sexu askatasunaren aurkako delituak eta abar.

2008-2017 Aholkularitza juridikoa gai hauei buruz: familia zuzenbidea, eskubide zibila, penala eta abar. Arrigorriagako Udaleko Gizarte Zerbitzuak.

2008-2012 Hizlaria Leioako Mesedeetako Ikastetxeko urteko jardunaldietan, haurtzaro eta gaztaroko indarkeriari buruzkoetan.

2008-2012 Hizlaria urteko jardunaldietan Bilboko Gurutze Gorrian, haurtzaro eta gaztaroko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz.

18/04/11 Hizlaria Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak antolatutako mahai-inguruan: "Genero-indarkeria: egunkaririk osasun-zentrora".

26/11/11 Hizlaria Leioako Unibertsitateko (EHU) Zuzenbide Fakultateak antolatutako mahai-inguruan: "Emakumea, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima gisa".

17/12/12 Hizlaria Leioako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak (EHU) antolatutako jardunaldietan: "Justizia emakumearen begiradan. Bosgarren edizioa: emakumea biktima gisa".

2011-2017 Ofiziozko txandako abokatu arlo hauetan: genero-indarkeria, zuzenbide zibila, zigor zuzenbidea eta zigor zuzenbide berezia.

2015-2017 BBK Fundazioko burua.

Hizkuntzak: euskara eta ingelesa (erdi-mailakoa).



## NEKAZARITZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

**Miren Maite Peñacoba Etxebarria** - Arrasate 1967.

### Ikasketak

- Enpresa eta Ekonomi Zientzietan Lizenziatua (1985-1990) Deustuko Unibertsitatea (ESTE).
- MBA (1991-1993) - College of Notre Dame (EEUU).

### Lan esperientzia

- BFA - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Saileko Aholkularia (2017-2018).
- FUNDACION HAZI FUNDAZIOA :
  - Proiektuetarako Finantza-laguntzen Arloburua (2013-2017).
  - Landa Garapen eta Sustapenerako Teknikaria (2011-2012).
- GFA: Landa Ingurunearen Garapeneko Foru Diputatuaren Aholkularia eta Landagipuzkoa 32 ekimenaren arduraduna (2008-2011).
- ITSASMENDIKOI S.A (previamente Mendikoi y actualmente Fundación Hazi Fundazioa): Landa Garapen eta Sustapenerako Teknikaria (2000-2008); urte hauetan zehar, 3 urte Eusko Jaurlaritzan Nekazaritzako Sailean europar programen teknikaria.
- MENDIKOI S.L: LEADER II eta 5b HELBURU Europar Laguntzen Programen arduraduna (1995-1998).
- IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA S.A: Kontsultora lanak europar proiektu batzutan. (1994-1995).
- EMPORIUM: Zentro komertzial bateten lanean EEBBetan MBA ikasketak burutzen nituen bitartean (1992-1993).

### Kargo publikoak

Elorrion Zinegotzia (2011-2015).

### Beste ikasketa batzuk

- Euskera eta Gaztelera ama hizkuntzak; EGA
- Ingelesa: 3 urteetan zehar lanean eta ikasten EEBBetan: TOEFL
- Frantsesa basikoa
- IVAP eta EHUko uda ikastaroak: Landa eta Tokiko Garapenarekin lotutakoa, Estatu Laguntzak, Proiektuen Kudeaketa.

## HERRITARRENGANAKO LAGUNTZAREN ETA ZERBITZU DIGITALEN ZUZENDARI NAGUSIA

**Nerea Martiartu Crespo**

Gernika-Lumon (Bizkaia) jaio zen 1975ean.

### Prestakuntza Akademikoa:

Lizentziaduna da Zuzenbidean eta diplomaduna Ekonomian Deustuko Unibertsitatean, Bilbo. (4. ikasturtea Lancaster University Law School and School of Management-en, UK).

MBA Master in Business Administration, Estrategia eta Finantzak Espezialitatetan, IE Business School-en, Madril. Ohorezko Aipamena masterraren amaierako proiektuan – Desarrollo de idea de negocio – Lease Plan Saria.

Aitzindaritza, berrikuntza eta pertsona-arteke trebeziak. 2010, IESE, Madril.

### Esperientzia Profesionala:

Mundu profesionaleko bere lehen urratsak Londresen eta Bruselan eman zituen Europako Batzordeak emandako Leonardo Da Vinci Bekarekin.

2001 eta 2007 urteen artean IE Business Schoolen (Madril) garatu zuen bere karrera profesionala, nazioarte mailan garrantzitsuenetakoa den negozio-eskoletako baten, Europa eta mundu mailan negozio-eskolen rankingetan TOP10aren barruan sartzen dena. Etapa horretan garapen korporatiboko gerentea izan zen (banka eta energiaren sektoreetan espezializatuta) eta ekintzailetza eta start-upen proiektuak aholkatu zituen.

2007an Deloitte Consulting-en sartu zen, enpresa eta erakunde publikoen aholkularitzaren arloan liderra den enpresan; hasieran senior manager lanak egin zituen eta, ostean, aholkularitzako zuzendari bihurtu zen.

2015ean Bizkaiko Foru Aldundira iritsi zen Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusi moduan.

### Hizkuntzak:

Ingelesa – Full profesional proficiency.

Frantsesa – Maila ertaina ahoz eta idatziz.

Euskara – Ama-hizkuntza.

## GARRAIOEN ZUZENDARI NAGUSIA

**Vidal Martínez Bartolomé**

Renedo de Valderadueyn jaio zen (León), 1956an.

EHUko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako lizentziatua.

### Lan esperientzia

Sektore pribatuan:

92/11/03tik 08/12/01era: Garraioen arloko Encartaciones SA, sozietatearen finantza eta ustiapeneko zuzendaria.

Sektore publikoan:

Enplegu publikoa

86/05/12tik 86/11/11ra: Enplegua sustatzeko 6 hilabeteko kontratua praktiketean, Bizkaiko Foru Aldundian, Bilboko Udalarekin izenpetutako hitzarmen baten bitartez. Kontratu hori dela eta, ekonomista gisa lan egin zuen Bilboko Udalaren Ogasun Sailean.

88/07/01etik 88/12/31ra: 6 hilabeteko kontratua Bizkaiko Foru Aldundian, Garraioen ikuskatzaile gisa.

Zerbitzu profesionalak

89/02/01etik 92/11/30era: Ekonomialari gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio Sailean.

89/02/01etik 92/11/30era: Ekonomialari gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio Sailean.

Kargu publikoa:

09/10/21etik 10/06/21era

10/07/01etik 12/12/21era Bizkaiko Garraio Partzuergoaren kudeatzailearen ondokoa.

Kargu publikoa: 15/07/16tik gaur egun arte. Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen zuzendari nagusia.